

# HEDATZE 2022-2024

Abadiñon, 2023ko irailaren 29an

Familia eta ikasle agurgarriak,

Ikasturte honetan ere, Abadiñoko institutuak Hedatze proiektua martxan jarriko du hurrengo astetik aurrera. Hedatze proiektuak ordutegi trinko izateko aukera ematen digu eta baita astean hiru arratsaldetan ez-gaindituak dituzten ikasleei eta beharra aurre-ikusten dutenei hezkuntza-indargarriak eskainiko dizkiegu jakintzagaika. Horretaz aparte, hainbat tailerrak esleituko dira eta liburutegiko zerbitzua bermatuko da. Aste honetan proiektu honetan parte hartuko duzuen familia eta ikasleek informazio pertsonalizatua iritsi zaizue baina ikasturtea aurrera joan ahala, beharren arabera irakasleek aholkatu egingo diete zeinetara bertaratzea.

**Jantokia** zerbitzuaren beharra izanez gero, orain eman behar duzue izena, hobe da orain erreserba egitea eta gero bertan behera uztea alderantziz baino. Hau da, beranduago apuntatuz gero, baliteke guztiontzako zerbitzu hori ez izatea. Beraz, ikastetxetik hezkuntza-indargarrietara etorriko zaretenoi lehen bait lehen izena ematea aholkatzen dizuegu. Hala ere, egun solteak izanez gero, ikastetxe barruan gela bat prestatuko dugu ikasleek etxetik ekarritakoa bazkaldu ahal izateko.

Hedatze zerbitzuaren 1.hiruhilabeterako egitaraua atxikiturik bidaltzen dizuegu.

Bide batez, gogoratu Hedatze proiektuak ez duela garraio zerbitzurik eskaintzen.

Besterik gabe, jaso agur bero bat eta laster arte,

Zuzendaritza Taldea.

**HEDATZE  
2022-2024**



**HEDATZEKO ORDUTEGI PROPOSAMENA**

	<b>ASTELEHENA</b>	<b>ASTEARTEA</b>		<b>OSTEGUNA</b>	
<b>15:00 / 16:00</b>	BIO-GEO / NATUR ZIENTZIAK 3DK SOZIO-LINGUISTIKOA <u>ZIENTZIA AZOKA TAILERRA</u> <u>GE TAILERRA</u>	EUSKARA GIZARTE 4DK SOZIO MINGUISTIKOA <u>YOGA TAILERRA</u> <u>MASKARA TAILERRA</u>		GAZTELANIA FISIKA-KIMIKA 3DK ZIENTIFIKOA 4DK ZIENTIFIKOA <u>ZESTA PUNTA TAILERRA</u>	
<b>16:00 / 17:00</b>	INGELESA <u>GE TAILERRA</u>	MATEMATIKA EKONOMIA		<u>IMPROVE YOU ENGLISH</u> <u>IKASLEEI ARRETA</u>	